

COVIDAREN AURKAKO OSASUN NEURRIAK

Txosten honetan 2021eko irailaren 30etik urriaren 3ra izango den XII. Zumaia Flysch Mendi lasterketa eta hau osatzen duten ekitaldietan zehar Covid-19aren transmisio aukerak gutxiagotzeko hartu beharreko neurriak zehazteko eratu da.

Honetarako Real Federacion Española de Atletismo, kirol proba hau arautzen duen federazioa, Munduko Osasun erakundeak eta Eusko Jaurlaritzak zehaztutako osasun neurrietan oinarrituta eratu da. Hala nola Zumaia Udalaren oniritzia ere jaso du protokoloak.

Hori horrela, hainbat zerbitzu egoera normaletik moldatu, ezabatu edo egokitu egin behar izango dira

Hori horrela zerbitzu hauetan neurri bereziak izango dira:

- Dortsala jasotzean.
- Briefinga.
- Irteera.
- Anoa guneak.
- Helmuga.
- Sari banaketa.
- Dutxa zerbitzua
- Ikusleak.

ALDAKETEN JAKINARAZPENA

Aldaketak egin, baina ez badira jakinarazten ez dute eraginik izango eta hori horrela berebiziko garrantzia izango du, korrikalari, boluntarioei eta ikusleei neurri hauek ezagutaraztea.

- KORRIKALARIAK:
 - Emailak: Probako neurriak emailaz bidaliko zaizkie korrikalari guztiei.
 - Korrikalarien poltsa: parte hartzaile guztiak neurri hauek jasoko dituzte dortsala jasotzerakoan.
 - Webgunea eta sare sozialak: Probaren webgunean lehen orrian kokatuko dira neurriak eta sare sozialetan ere probaren aurreko egunetan publikatuko dira.
- IKUSLEAK
 - Triptikoa: probaren informazioa zehazten duen triptikoan neurrien laburpen bat jasoko da.
 - Boluntarioak: neurriak momentuoro gogoraziko dizkie hauek betetzen ez dizkienei.
 - Megafonia: hizlariak ikuslei neurriak gogoraziko dizkie.

OSASUN ZAINZAKO NEURRIAK

Covid egoerak sortutako osasun krisialdiaren ondorioz, neurri bereziak hartu beharko dira probaren antolakuntzan. Neurri hauek espazioen antolakuntzatik hasi eta partaide bakoitzak hartu behar dituen neurritara joango dira.

1. OROKORRA

- Covid-19arekin bateragarri diren sintomak izanez gero bakartu.
- Autoa konpartitu behar izanez, bertako neurri zehatzak bete.

2. BRIEFING EDO TXARLA TEKNIKOA

- Korrikalariei probaren nondik norakoekin bideo baten linka bidaliko zaie.
- Covid-19aren aurkako protokoloa email berean gehituko da.

3. DORSALAK JASOTZEA

- Dorsalak jasotzean NAN erakutsi beharko da, ez entregatu.
- Irteera mailakatua izango denez talde bakoitzak bere mahaia izango du izendatua.
- Pertsonen artean distantziak markatuko dira.
- Musukoaren erabilera derrigorrezkoa izango da.

4. IRTEERA

Irteera Eusebio Gurrutxaga plazan emango da eta aire libreko eremua izan arren, irteerak mailakatuak izango dira jende multzo handiak direnean. Hori horrela irteera horrela izango da:

ORDUA	PROBA	DORSALAK	TALDEA	SARRERA EREMUA
07:30	Maratoia	1-110	-	1
08:30	Maratoi erdia	300-420	A	1
08:35	Maratoi erdia	421-540	B	2
08:40	Maratoi erdia	541-660	C	1
08:45	Maratoi erdia	661-780	D	2
08:50	Maratoi erdia	781-890	E	1

Mailaketa hau izan arren korrikalari bakoitzak proban egindako denbora erreala izango du.

- Irteera eman arte musukoa erabiltzea derrigorrezkoa izango da. Antolakuntzak korrikalarien poltsan higieniko bat emango du.
Behin irteera eman eta gainontzeko korrikalariekin distantzia mantentzen denean ez da erabilera derrigorrezkoa izango.

5. ANOA GUNEAK

- Erabilera bakarreko edalontzietan egongo da edateko.
- Jatekoa plater edo bandejatan egongo da dosi indibidualetan.
- Platera utzik egonez gero boluntarioek pintzekin emango diote korrikalariari.

6. HELMUGA

- Helmuga eta anoa gunea ezberdinduta egongo dira eta ohikoa baino espazio handiagoa izango da.
- Ahal bezain laster musukoa jantzi beharko da.
- Anoa gunea nagusitik pasa ondoren ahal bezain laster plazatik irten beharko da.

7. DUTXA ZERBITZUA

- Nahiz eta kiroldegian dutxak egon, bertan markatutako puntutan eseri beharko da.
- Musukoa derrigorrezkoa izango da dutxa momentuan ezik.
- Gogoratu dutxa eta kontsigna zerbitzua 16:30etan itxiko dela.
- Helmuga puntuan aire libreko "dutxa" egongo da nahi duenarentzat.

8. SARI BANAKETA

- 13:00etan hasiko da sari banaketa podiumeko kamioian.
- Partaide guztiek musukoa jantzita eramango dute. Argazkia ateratzeko kenduko dut baldin eta 1,5m-ko distantzia mantentzen bada.